

# Biltzarreko araudia

## Normativa kongresual

**ERAIKI**  orain da garaia  
**DEZAGUN**  **LANGILEON**  
**EUSKAL HERRIA**

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

ZORZI.  
biltzar nagusia



ZABALTZEN

Zbkia

TXT 20212

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

**Biltzarreko araudia**

# Biltzarra burutzeko metodologia

## 1. Biltzarraren hasiera

Nazio Komitea arduratuko da Biltzarra gidatzeaz, harik eta 8. Biltzarreko saioak zuzenduko dituen mahaia aukeratua izan arte. Nazio Komiteak hasiera emango dio ofizialki eztabaidari, eta Kudeaketa Txostenaren onartzeaz eta Biltzarreko Mahaia aukeratzeaz arduratuko da.

## 2. Araudiaren onarpena

Nazio Komiteak Biltzar Nagusiari araudia aurkeztuko dio, oniritzia eman diezaion. Araudi hau aldez aurretik Nazio Biltzarrak onartua izan beharko da.

## 3. Kudeaketa txostenaren aurkezpena, eztabaida eta onarpena

Nazio Komiteak Biltzarrari Kudeaketa Txostena aurkeztuko dio eztabaidatzeko eta, egokia balitz, onartzeko. Kudeaketa txosten hau biltzarkideen esku egongo da hasi baino bi aste lehenago.

## 4. Mahaiaren hautaketa

Nazio Komiteak mahaia proposatuko dio Biltzarrari aztertu dezan. Proposamen hau aldez aurretik Nazio Biltzarrak onartua izan beharko da.

Biltzarreko Mahaia mahaiburuak eta zortzi kidek osatuko dute. Pertsona hauek aukeratzeko orduan, lurralde, sektore, genero, adin eta abarreko irizpideak kontuan hartuko dira. Mahaiak euskara hutsean arituko da eta bere funtzioak kide guztien artean banatuko ditu.

Biltzarreko Mahaia behin aukeratuta, kargua uzten duen Nazio Komiteak bere funtzioak utzi eta Mahaiak berak hartuko du ordezkaritza ardura zein Biltzar Nagusiaren garapenari dagozkion kontu guztien ardura.

Mahaikideren batek emendakinen bat aurkeztu izan balu, honen defentsa onartuko duen biltzarkideren baten esku utzi beharko du.

## 5. Ponentzien eta emendakinen eztabaida eta onarpena

Ponentzia aurkeztu ondoren, emendakinak eztabaidatzeko eta erabakitzeko ordena ondoko hau izango da: lehenbiziz osoko emendakinak eta ondoren partzialak, prozedura honen arabera:

- 1.- Emendagileak emendakina aurkeztu
- 2.- Ponentzia taldearen jarrera
- 3.- Biltzarkideen eztabaida
- 4.- Emendakinaren egileen interbentzioa
- 5.- Ponentziagileen interbentzioa
- 6.- Bozketa

Ponentzia taldeak onartu dituen emendakinak zuzenean bozkatzeari ekin ahal izango zaio. Emendakina egin duenak edo ponentzia taldeak, egoki ikusten badute, aldez aurretik azaldu ahal izango dituzte.

# Biltzarreko araudia

## 6. Bozketak

Biltzarkideek boto bana eman ahal izango dute. Boto hau ezin izango zaio inolaz ere beste bati delegatu.

Biltzar Nagusiko erabakiak honelaxe hartuko dira:

- Estatuetan aurreikusitako gehiengo kualifikatuaren beharra dagoenean erabaki bat hartzeko, botoak zenbatu egingo dira.
- Osoko emendakin bat onartzeko, biltzarkideen boto guztien erdia gehi bat lortu beharko ditu.
- Gainontzeko bozketetan, momentuan presente dauden biltzarkideen gehiengo sinpleaz hartuko dira erabakiak. Biltzarkideen kopuru erdia gehi bat egon behar dira presente.
- Bozketetan gehiengo mahaiaren irizpidez nabaria balitz, hori nahikoa izango da onartzeko, ez bada biltzarkideren batek botoak zenbatzeko eskatzen duela.
- Nazio Komitea aukeratzeko bozketa sekretua izango da.

Eztabaidara ekarritako ponentziak, onartutako emendakinekin batera, Biltzar Nagusian bozkatuko dira. Behin betiko onartzeko, bozketan parte hartzen duten biltzarkideen erdiak gehi batek horrela bozkatu behar ditu.

## 7. Nazio Komitearen aukeraketa

Nazio Komiteak, Biltzarra baino bi aste lehenago, aldaketak eta zuzendaritza berriaren proposamena aurkeztuko dio militantziari. Proposamen honetan gutxienez pertsona bakoitzaren izen-abizenak zein arduerarako proposatzen den adierazi beharko da.

Biltzarreko Mahaia aukeratu bezain laster, proposamen hau jakinaraziko zaio. Biltzarreko Mahaiak, era berean, Biltzar Nagusiari emango dio honen berri. Momentu horretatik aurrera eta egun bereko 19:00ak arte hautagai-zerrendak aurkezteko aukera egongo da.

Hautagai-zerrenda alternatiboak aurkeztu ahal izateko, Nazio Komiteko ardura guztiak aurreikusteaz gain (Nazio Komiteak Biltzar Nagusiari egiten dion proposamena bezala), biltzarkideen %10ek eman behar du sinadura zerrenda hori abalatzeko. Argi denez, proposatuko lagunak ados egon behar dira. Inork ezin izango du parte hartu zerrenda batean baino gehiagotan.

Zerrenda bat baino gehiago aurkeztuko balitz, guztien arteko bozketa sekretua egingo litzateke. Biltzarkide guztien botoen erdia gehi bat lortuko litzuzkeen zerrenda izango litzateke aukeratua.

Lehenbiziko bozketa honetan zerrenda batek ere ez balu beharrezko botorik lortuko, bigarren bozketa bat burutuko litzateke. Boto gehien lortuko litzuzkeen zerrenda izango litzakete aukeratua.

Hautagai-zerrenda bakarra balego, Biltzar Nagusiak zerrenda osoaren bozketa sekretua egingo luke. Onartua izateko, lehenbiziko bozketan biltzarkide guztien botoen erdia gehi bat lortu beharko ditu; bigarren bozketan gehiengo sinpleaz onartuko da.

## 8. Jakinarazpenak

Sindikatu egiturek, lurraldeetakoek zein sektoreetakoek, Biltzarreko Mahaiari egoki ikusten dituzten komunikatu guztiak helarazi ahal izango dizkiote euskarri informatikoan. Komunikatu hauek ezin dira izan ponentzien edukien ingurukoak. Biltzarreko Mahaiak denak aztertuko ditu eta nola jokatu erabakiko du.

## **9. Biltzar Nagusiaren garapena**

Nazio Komiteak Biltzar Nagusia behar bezala burutzen dela bermatuko du. Horretarako behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriko ditu eta, gainera, hilabete lehenago biltzarkideei ondoko gai hauetaz, beste batzuen artean, informatuko die:

- Biltzarkideen kreditazioa. Nola eta non.
- Biltzar Nagusiaren ordutegia
- Amaiera ekitaldia
- Gonbidatutako ordezkarien berri
- Kontu teknikoak: bat-bateko itzulpena, biltzarkideen kokapena...

## Metodología para el desarrollo del Congreso

### 1. Apertura del congreso

La presidencia del Congreso hasta que sea elegida la mesa que dirigirá las sesiones del 8º Congreso corresponderá al Comité Nacional que abrirá oficialmente las sesiones, el debate y aprobación del Informe de Gestión y la elección de la Mesa del mismo.

### 2. Aprobación de la normativa

El Comité Nacional someterá a la consideración del Congreso la propuesta de normativa para el desarrollo del mismo aprobada previamente por la Asamblea Nacional.

### 3. Presentación, debate y aprobación del informe de gestión

El Comité Nacional presentará al Congreso el Informe de Gestión para su debate y, si procede, aprobación. Este Informe de Gestión estará a disposición de las delegadas y de los delegados elegidos para el Congreso dos semanas antes del inicio del mismo.

### 4. Elección de la mesa

El Comité Nacional, previa aprobación en la Asamblea Nacional, presentará al Congreso una propuesta de Mesa del Congreso para su consideración.

La Mesa del Congreso estará compuesta por la o el presidente y ocho vocales. La elección de estas personas se realizará respetando criterios territoriales, sectoriales, género, edad,... La mesa que, utilizará solamente el euskera en el desarrollo de sus funciones, distribuirá sus responsabilidades entre las citadas personas.

Una vez elegida la Mesa del Congreso, el Comité Nacional saliente cesará en sus funciones y será la propia Mesa quien asuma la responsabilidad representativa, así como todas las cuestiones relativas a la marcha y desarrollo del Congreso.

Aquellas personas de la mesa que hayan presentado enmiendas deberán delegar la defensa de las mismas a cualquier otra u otro congresista que voluntariamente lo acepte.

### 5. Debate y aprobación de las ponencias y de las enmiendas

Tras la presentación de la ponencia, el orden de debate y decisión de las enmiendas será en primer lugar las enmiendas a la totalidad y posteriormente las parciales respetando el siguiente procedimiento:

- 1.- Presentación de la enmienda por la o el enmendante.
- 2.- Posicionamiento de la comisión de ponencias.
- 3.- Debate congresistas.
- 4.- Intervención enmendante/s.
- 5.- Intervención ponentes.
- 6.- Votación.

Aquellas enmiendas que hayan sido aceptadas por el talde de ponencias, previa explicación, si lo consideran conveniente, tanto de la o del enmendante como del talde de ponencia, se pasará directamente a la votación.

## **6. Votaciones**

Cada persona delegada tendrá derecho a un voto que, en ningún caso, podrá delegar en otra persona.

Las decisiones en el Congreso se adoptarán de la siguiente forma:

- Cuando las decisiones exijan las mayorías cualificadas contempladas en los Estatutos se procederá al recuento de los votos.
- Para que una enmienda a la totalidad sea aprobada deberá obtener al menos la mitad más uno de los votos de la totalidad de las y los congresistas.
- En el resto de las votaciones, las decisiones se adoptaran por mayorías simples de las y los presentes en el momento de la votación, siempre que estén presentes la mitad más uno de la totalidad de las y los congresistas.
- Cuando, a criterio de la mesa, en las votaciones la mayoría se manifieste de forma clara será suficiente salvo que, alguna delegada o algún delegado, pida expresamente el recuento de los votos.
- En la elección del Comité Nacional la votación será secreta.

Las ponencias presentadas a debate, con las enmiendas aprobadas incluidas, serán sometidas a votación del Congreso. Para su aprobación definitiva deberán obtener la mitad más uno de los votos de las y los congresistas que participen en la votación.

## **7. Elección del Comité Nacional**

El Comité Nacional se compromete a presentar a la militancia los cambios y la propuesta de nueva dirección dos semanas antes del Congreso. Dicha propuesta deberá contener, cuando menos, el nombre y apellidos de la persona propuesta y la responsabilidad para la que se la o se le propone.

Esta propuesta será comunicada a la Mesa del Congreso tan pronto como sea elegida, para a su vez ésta se lo comunique al Congreso. A partir de ese momento y hasta las 19:00 horas del mismo día se abre el plazo para presentar candidaturas.

Para poder presentar candidaturas alternativas, además de prever todas y cada una de las responsabilidades para el Comité Nacional (tal y como recoge la propuesta del Comité Nacional saliente), deberán estar avaladas con la firma, al menos, del 10% de las y los congresistas y, lógicamente, contar con el consentimiento de las personas propuestas. Ninguna persona podrá formar parte en más de una candidatura.

Si se presentara más de una candidatura se procedería a una votación secreta entre todas las candidaturas presentadas resultando elegida aquella que obtuviera la mitad más uno de los votos de la totalidad de las y los congresistas.

Si en esta primera votación ninguna de las candidaturas obtuviera los votos necesarios se procedería a realizar una segunda votación, siendo elegida la candidatura que obtuviera más votos.

En el caso de una sola candidatura ésta será sometida a votación secreta del Congreso y para su elección la lista en su conjunto deberá obtener la mitad más uno de los votos de la totalidad de las y los congresistas en primera votación, y mayoría simple en segunda votación.

## **8. Comunicaciones**

Las estructuras del sindicato, territoriales y sectoriales, podrán presentar en soporte informático a la Mesa del

# Normativa congresual

Congreso cuantas comunicaciones consideren oportunas. Estas comunicaciones no deberán afectar al contenido de las ponencias presentadas. La Mesa del Congreso analizará todas ellas y valorará el tratamiento que le merece cada una de ellas

## 9. Desarrollo del congreso

El Comité Nacional garantizará un desarrollo adecuado del Congreso poniendo los medios humanos y técnicos necesarios y además, con una antelación mínima de un mes, informara a las y a los congresistas de, entre otras, las siguientes cuestiones:

- Acreditación de las delegadas y de los delegados. Forma y lugar.
- Horario de sesiones del Congreso.
- Acto de clausura.
- Información de las Delegaciones invitadas.
- Desarrollo técnico: traducción simultanea, ubicación congresistas.....